

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Merkatuaren segmentazioa beharrezko ezaugarri bat dela uste dugu. Horregatik, eremua, baliabideak eta beharrak aztertuko ditugu, gure enpresa aurrera joan ahal izateko eta proiektua guztiz bideragarria izan ahal izateko. Horretarako, hainbat esparru desberdin aztertuko ditugu; hauen artean, Durangaldeko haurren kopurua (azken finean gure enpresa haurrei bideratuta dagoelako) izango da, kontuan hartuko dugun esparruetako bat. Besteak-beste, enpresaren kokapena, eskainiko ditugun zerbitzuak... familia horien beharretara, ohituren arabera eta haurren adinaren arabera sailkatuko ditugu gure taldeak.

Familiak hainbat behar dituzte, hala nola, haurrekin denbora gehiago pasatzea, beste familia ereduak ezagutzea edo beste familiengandik ohiturak ikastea. Gure helburuetako bat, familiei behar hauek asetzen laguntzea da, oso garrantzitsua iruditzen zaigulako familia guztiek beste familia mota desberdinak ezagutzea, eta, horrez gain, haurrak haien familiako kideekin denbora gehiago pasatzea. Beste helburuetako bat, denbora pasa ahala, ahalik eta familia gehien gure elkartean edukitzea da, horrela familien arteko elkarreragina sustatuko dugu eta familia mota desberdinak eta beraien ohiturak ikasiko eta barneratuko dituzte. Oso garrantzitsua iruditzen zaigu elkartera etortzen diren familiak, gurekin gustura egotea, eta motibatuta eta pozik etortzea.

Enpresa Durangon kokatuta egongo da, Bizkaian. Haurrei bideratutako enpresa eta aisialdia sortu dugu, familia ahaztu gabe, hau da, aisialdi mota bat eraikiko dugu, haurren eta gurasoen arteko aisialdia bateratuz.

Enpresa Durangon egokitzea erabaki dugu, alokatuko dugun lokala bertan dagoelako, baina haurrak eta haien familiak ez dute soilik aisialdia Durangon egingo, Euskal Herri osotik egingo dugu. Ekintzak leku desberdinetan egingo ditugunez, haurrak naturarekiko lotura eta kontaktu zuzena izango dute. Durangon udaletxeak sortutako aisialdi eta kultur elkarteak dago. Lehiaketa bidez egiten denez, zenbait elkarten lehiakortasuna emango zen; izan ere, aisialdiko elkarte ugari egoteak arazoak ekar ditzake. Hala ere, gure proposamena ezin hobea da, gehienetan soilik haurrentzat edo soilik helduentzat bideratuta dauden aisialdiak direlako.

Aipatzekoa da, merkatua eta ingurua aztertu ostean, Durangaldean beste aisialdi elkarte batzuk badaudela ikusi dugu, adibidez Berbaro elkarteak, Katalamixon eta Kimuak, beraien artean. Esan beharra dago, gainerako aisialdi elkarteak oso eskaintza desberdina dutela

gurearekin konparatuz, batez ere, orain aipatutako elkarte hauek, haurrari bideratutako aisialdian zentratzen direlako eskusiboki.

Normalean elkarte hauek haurren udako aisialdian zentratzen dira, baina egia da, Berbaroren kasuan, udaz gain, urtean zehar ekintza eta irteera desberdinak eskaintzan dizkietela haurrei.

Durangaldeko haur-nerabe azterketa egin ondoren, zifra oso nabariak ikusi dira, 0-12 urte bitartean. Zehazki Durangaldean adin horretako haur-nerabeak 495.733 dira. Baina gure aisialdi elkarteak, 0-12 urte bitarteko haurretan zentratuko da, beraz, 10.500 haur inguru izango dute aukera guk eskainiko dugun aisialdian gozatzeko.

Goian eman diren zifrak kontuan izanik, ezin izango ditugu haur guzti horien beharrak asetu, gaur egun dugun egoeraren eraginez, COVID-19a dela eta, zifra horiek murriztu egingo ditugu eta haur eta familia gutxiagok parte hartuko dute, talde burbuiletan aritzeko eta gaixotasun honen kutsadura saihestu ahal izateko. Egoera hau hobetuz joan ahala, bertan eman diren zifrak kontuan izan ahalko ditugu.